

## INFORMAZIO OHARRA

### **Enkarni Genuak Manuel Lekuona 2022 saria jaso du zeremonia bizi eta atsegin batean**

*Euskal kulturari egindako ekarpena aitortzen duen sari-banaketan txotxongiloek, saridunarekin solasean, leku nabarmena hartu dute*

**Donostia, 2023ko martxoak 16.** Donostiako Udaletxeko Udalbatza aretoa txiki geratu da gaur, Enkarni Genua antzerki-sortzaile eta idazleari Manuel Lekuona 2022 Saria emateko omenaldiarekin bat egin nahi izan duen jende ugaria hartzeko.

Eneko Goia hiriko alkateak ongietorria egin du eta, jarraian, Rosa Martínez txotxongilolariak gidatu du ekitaldia. Ondoren, Mikel Arregik, Euskarabidea- Euskararen Nafar Institutuko zuzendariak, irakurri du epaimahaiaren izenean erabakia.

Ana Urkiza, Eusko Ikaskuntzako lehendakaria, hasi da gogoratzen lehen aldia dela sari hori sortzaile eszeniko batek eskuratzen duela. Hala ere, Eusko Ikaskuntzaren lehen etapan, euskarazko sorkuntza sustatzeko xedez, txotxongiloentzako lehiaketak antolatu zituen, bere garai horretan ekimen oso berritzailea izanik. 1971tik Enkarni eta Manolo Gómez senarra euskarazko txotxongilo antzerkia egiten ari direla nabarmendu zuen, Txontxongillo Taldearekin batera. Eta, bukatzeko, adierazi du, bere aburuz, Enkarnik jaso dezakeen saririk onena “euren obrak imajinatu, muntatu eta irudikatzen dituzten haur horiek guztiek ematen dizkieten irribarre eta txaloak” direla.

Manuel Lekuona Saria ematen dion Remigio Mendibururen eskultura jaso ondoren, Enkarni Genuak modu sortzaile eta informalean eskertu nahi izan du omenaldia. Euskal kulturaren kate luzean bere ekarpena beste bat gehiago bezala kokatu nahi izan du, arte eta ikerketa diziplina anitzetan diharduten pertsona ugarik osatua. Haren ustez, txotxongiloaren munduak, aitorpen apala izaten ohi duenak, haize freskoa ematen dio errelatoari, eta arte eszenikoen genero hori lantzen duten guztiekin partekatu du saria. Txirene, Txontxongillo Taldearen erreperatorioko pertsonaia, ekitaldian agertzeak kutsu espontaneo eta dibertigarria eman dio ekitaldiari, bertaratutako ikusleen gogobetetasun argia piztuz.

Ekitaldiari amaiera emateko, Markel Olano Diputatu Nagusiak hitza hartu du.

Zeremonian, ikus-entzunezko labur bat ere proiektatu da, eta Enkarni Genuaren biografia eta bibliografiarekin liburu bat banatu da, Manuel Lekuona Saria bildumaren 39. zenbakia.

## NOTA INFORMATIVA

### **Enkarni Genua recibe el Premio Manuel Lekuona 2022 en una ceremonia entrañable y animada**

*Los títeres han cobrado protagonismo, conversando con la premiada, en el acto de entrega del galardón que reconoce su aportación a la cultura vasca*

**Donostia-San Sebastián, 16 de marzo de 2023.** El Salón de Plenos del Ayuntamiento de San Sebastián se ha quedado pequeño para acoger al numeroso público que este jueves 16 de marzo ha querido sumarse al homenaje a la creadora teatral y escritora Enkarni Genua con motivo de la entrega del Premio Manuel Lekuona 2022.

El Alcalde de la ciudad, Eneko Goia, ha dado la bienvenida al acto, que ha sido conducido por la también titiritera Rosa Martínez. A continuación, se ha abierto con la lectura del fallo por parte de un representante del jurado, Mikel Arregi, director de Euskarabidea — Instituto Navarro del Euskera.

Ana Urkiza, Presidenta de Eusko Ikaskuntza, ha empezado recordando que es la primera vez que este galardón recae en una creadora escénica. Sin embargo, ya en su primera etapa la Sociedad, en su labor de fomento de la creación en euskera, convocó certámenes para títeres, iniciativa entonces muy novedosa. Destacó que, desde 1971, Enkarni y su esposo Manolo Gómez están llevando el teatro de títeres en euskera por todas las latitudes con su compañía Txontxongillo Taldea. Y ha terminado expresando su convicción de que el mejor premio que puede recibir Enkarni es el “que le dan con sus sonrisas y sus aplausos los niños y las niñas para quienes imaginan, montan y representan sus obras”.

Tras recibir la obra de Remigio Mendiburu que le acredita como Premio Manuel Lekuona, Enkarni Genua ha querido agradecer el homenaje de una manera creativa e informal. Ha cifrado su contribución como una más en la larga cadena de la cultura vasca compuesta por numerosas personas dedicadas a las más variadas disciplinas artísticas y de investigación. Considera que el mundo de la marioneta, dentro de su discreto reconocimiento, aporta un particular aire fresco, y con cuantos cultivan este género de las artes escénicas ha compartido el premio. La irrupción de un personaje del repertorio de Txontxongillo Taldea, Txirene, ha puesto un contrapunto espontáneo y divertido al acto, con manifiesta satisfacción del público asistente.

Para cerrar el acto, el Diputado General de Gipuzkoa, Markel Olano, ha

tomado la palabra, poniendo así fin a la ronda de intervenciones.

Durante la ceremonia se ha proyectado también un breve audiovisual y se ha repartido un libro con la biografía y la bibliografía de Enkarni Genua, que hace el número 39 de la colección Premio Manuel Lekuona.